

## webgunea

### EIZIEK webgune berritua sareratuko du otsailaren bukaeran

Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpretaren Elkartearen webgunea berritzeko zorian dago. Otsailaren amaierarako zabalduko dute gune berritua. EIZIEk bere webgunea 1997an sortu zuen, eta ordutik etengabe indartu eta eduki gehiago hornitu dute. Orain lantzen ari diren webgunea gune dinamikoak izanen omen da.




Helbidea: [www.eizie.org](http://www.eizie.org)

## argitalpena

### Frankismoan preso egon zirentzako kalte-ordaina hizpide 'Pilpilean'-en

*Pilpilean* Soraluzeko hamaboskariaren azken zenbakian erreportaia egin dute Jaurilaritzak frankismoan preso egon zirenei emanen dien kalte-ordainen inguruan. Horretarako, hiru soraluzetarren kasuak aipatu dituzte. Horietako bat, Jaio Ezenarro, 86 urtekoa, frankisten preso ez ezik, errepublikanoen eta alemaniarren preso ere izan zen.



Argitaratzailea: **Pil-pilean Kultura Elkartea.**

### DONOSTIA. 'Wild man blues'.

Gaur, 20:00etan, Lugaritz kultur etxean.

**GERNIKA. 'Hire Himalaya'.** Gaur, 20:00etan, Elai-Alai aretoan. Alberto Iñurrategiren eskutik.

**LASARTE. 'Irreversible'.** Gaur, 22:00etan, Auditorioan.

**PLENTZIA. 'Pan y rosas'.** Gaur, 19:00etan, kultur etxean.

**ZIZUR NAGUSIA. 'Las cartas de Alou' eta 'Ikuska 11' fil laburra.** Gaur, 20:00etan, kultur etxean. Filmeen osteko solasaldia Blanca oriak gidatuko du. Montxo Armendariz zinemagilearen gaineko zikloaren barnean.

### bestelakoak

**ARANTZA. Inauteriak.** Gaur, goizeko 9:00etan, Mozorro Zuriaren gosaria egongo da Zakutenean. 10:00etan, Mozorro Zuriak eskolara joango dira. 11:00etan, Mozorro zuriak baserriz baserri ibiliko dira. Ilunabarrean, emakumeen afaria egingo dute Kalkoetxean.

**BILBO. 'Paisajes astrológicos' liburuaren aurkezpena.** Gaur, La Casa del Libro liburu dendan, 19:30ean. *La astrología: un universo de posibilidades* hitzaldia emanen du Humberto Sabatini psikologo eta astrologoak.

**DONOSTIA. 'La sombra de la bruja es...' ipuin kontaketa.** Gaur, 18:00etan, Aitza kultur etxean. Hiru eta bost urte arteko haurrendako.

**'Hodei tripaundia' ipuin kontaketa.** Gaur, 18:00etan, Egia kultur etxean.

**EIBAR. Mahai futbola lehiaketa.** Gaur, 18:30ean, Errota gaztelekuan.

### ETXARRI-ARANATZ.

**Inauteriak.** Gaur, etxex etxe eskean ibiltzeko Andrekunde eguna izanen dute. Helduak arratsaldean aterako dira; txatarraz jantzita plazan bilduko dira 19:00etan.

**HONDARRIBIA. Hondarribiko historiari buruzko komikiaren aurkezpena.** Gaur, 19:30ean, udaletxean.

### erakusketak

**BALMASEDA. 'XXI. mendeko idazle berriak'.** Ateneoan, otsailaren 24a arte.

**BILBO. 'H.E.D.B'.** Luis

## hitzaldia

'Nire bizitzako harriak'. Gaur, Iruñeko Erraldioen Txokoan (20:00etan).

Asier Azpilikueta | DONOSTIA

Iñaki Perurena harri-jasotzaileak *Nire bizitzako harriak* izeneko hitzaldia emanen du gaur Iruñean, Nafar Ateneoak antolatuta. *Harria mundu, mundua harri* liburua argitaratua du leitzarrak.

### ■ Zein dira zure bizitzako harri horiek?

Beste jende askoren harriak: bizitzaren borrokatze hori; bizitzak jartzen digun oztupoa; bizitzak bide gogorak ere behar ditu benetako bizitza izateko; askotan, zuk zure buruari gogortasuna jarri diozu eta beste batzuetan besteek jartzen dizute... horiek dira bizitzako harriak.

### ■ Zein da zure bizitzan jasotzea gehien kostatu zaizun harria?

Pentsatzen dut oraindik nire bizitzako harririk astunenak jaso gabe dauzkadala.

### ■ Eta zein dira horiek?

Gizarte honek gainean dauzkan hainbat eta hainbat harri.

### ■ 46 urte dituzu. Noiz arte ariko zara harriak jasotzen?

Nik bizi osoan egon nahi nuke harriak jasotzen.

## IÑAKI PERURENA HARRI-JASOTZAILEA

# «Harria jasotzen dut, baina ez naiz harri-jasotzailea»



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Candaudapen azken bost urteko margolanak. Windsor Kulturgingintza galerian, otsailaren 28a arte.

**Angeles Santosen margolanak.** BBK erakusketa aretoan (Gran Via, 32) izanen dira martxoaren 2a arte.

**'Senegal'.** Jose Luis Irigoienaren argazkiak. La Taberna de los Mundos tabernan, martxoaren 3a arte.

**'Si levantara la cabeza'.** Angel Garrazaren erakusketa Espacio Marzana galerian izanen da martxoaren 25a arte.

**'On my own'.** Manu Arregiren bideoak Bilbaoarte aretoan egonen dira ikusgai martxoaren 28a arte.

**DONOSTIA. 'Bestelako Meninak'.** Martxoaren 2ra bitartean, Kursaleko Kutxaren Kubo Aretoan. Woman Together erakundearen eskutik.

**Julian Ugarteren margolanak.** San Telmo museoan izanen dira apirilaren 6a arte.

**'Arkitektura eszentrikoak'.** James Casebere, Magdalena Jetelova, Tadashi Kawamata, Georges Rousse eta Edwin Zwakman artisten lanak biltzen dituen erakusketa. Koldo Mitxelena kulturunean, apirilaren 19a arte.

**'Nere txalupatik'.** Mikel Rikondoren argazkiak Aquariumean izanen dira apirilaren 27a arte.

**DURANGO. Paco Aguilarren lan grafikoa.** Beittu galerian egonen da martxoaren 1a arte.

**EIBAR. 'Klona dezagun'.** Antonio Irisarriaren argazkiak Topaleku aretoan izanen dira otsailaren 23a arte.

**GERNIKA. 'Kemenak. Gaingintzako bultzada'.** Juan

Armentiak Sydneyko Joko Paralimpikoetan eginitako argazkiak otsailaren 28a arte egonen dira Elai-Alai aretoan.

**HERNANI. Luisilloren egur erakusketa.** Andragoto kultur elkartearen, otsailaren 28a arte.

**IRUN. 'Sei emakume'.** Helena Elbustoren, Maider Goikoetxearen, Ana Izuraren, Carmen Mauraren, Carolina Lazkonetegiren eta Susana Zaldibarren artelanak Amaia aretoan izanen dira martxoaren 2a arte.

**IRUÑEA. 'Hecho en Cuba'.** Jose Maria Diaz-Marotok Kuban eginitako argazkiak Contraluz galerian (Urrobi ibaia, 3) izanen dira martxoaren 4a arte.

**SOPUERTA. 'Etxeko gaztagintza eta guringintza'.** Erakusketa Enkarerrietako museoan

izanen da martxoaren 10 arte.

**TOLOSA. 'El Pinacate, biosferako erreserba' eta 'Alta, basamortu handia'.** Cecilia G. de Gilarte idazle tolosarraren idazlanen osaturiko erakusketa otsaila bukatu arte egonen da helduen eskolan.

**'Sexualitate'.** Argazki erakusketa. Aranburu jauregian, martxoaren 1a arte.

### lehiaketak

**AZPEITIA. Erriarraitz Bertso-Paper Lehiaketa.** Urola erdialdeko edonork har dezake parte. 18 urtetik behekoek, gutxienez, 6 bertso egiten dituzte; eta 18 urtetik goitikoek, gutxienez, 8. Gaia librea da. Bertsoak martxoaren 8a baino lehen eman behar dira ondoko helbidean:

Erriarraitz Bertsozale Elkartea, 265 postakutxa, 20730 Azpeitia.

**BASAURI. Ganorabako komiki lehiaketa.** Gaia librea da, baina pertsonai guztiak jatorrizkoak eta argitaratugabeak izan behar dute, autoreak berak sortutakoak. Lan bakoitzak A4 neurriko lau orri izanen ditu gehienez. Lanak zuri-beltzetan edota koloretan izaten ahal dira, euskaraz edo gaztelaniaz. Lanak kultur etxean eman behar dira martxoaren 31 baino lehen.

**DONOSTIA. 'Donostia Hiria' Piano lehiaketa.** 2003. urteko martxoan izango den lehiaketarako oinarriak aterako dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, [www.concursopiano.com](http://www.concursopiano.com) webgunean edo 34-943 290 739 telefono zenbakian.